



SAN JUANAK EIBARREN

kartel lehiaketa (2020)

Eibarko Udalaren Kultura Batzordeak 2020 Sanjuan jaietarako kartelaren lehiaketa deialdia egiten du honako oinarri hauek argitara emanez:

Derrigorrezko testua: SANJUANAK EIBARREN
Gainera deialdiaren urtea azaldu beharko da.

Gaia: norberaren aukeran.
Kolorea: norberaren aukerakoa.
Neurriak: 70x50 zm.
Lanak aurkezteko formatua:

- **formatu digitalizatu batean (JPG formatuan, 300 ppp-ko bereizmenarekin).**

Email ez da jasoko lanik.

Lanak aurkezteko epea: 2020ko maiatzaren 4tik 25era, 23:59ra arte.

Lehiaketan izena emateko eta lanak aurkezteko bideak:

- **Elektronikoki:** www.eibar.eus. Kartela formatu digitalean erantsi beharko da. 15 urtetik gorako kasuan, NANA formatu digitalean erantsi beharko da.

Kartelak lemapean aurkeztuko dira. Izena ematerako orduan, egileak ondorengo datuak erraztu beharko ditu:

- Kartelaren lema.
- Adin-tartea: 10 urte arte, 11 eta 14 urte bitartekoa, ala 15 urtetik gorakoa.
- Egilearen izen-abizenak.
- Egilearen adina.
- Egilearen bizilekua.
- Egilearen telefonoa eta e-maila.

Lehiaketa honetan ezin izango dute parte hartu, aurreko kartel-lehiaketetan (Aratosteak, Sanjuanak, Sanandresak) bost aldiz edo gehiagotan sarituak izan badira.

Saria 600 eurotako izango da. 10 urte arte, eta 11 eta 14 bitartekoentzat bi sari berezi izango dira (dirurik ez).

Lehiaketan irabazlerik ez egotea ere gerta liteke.

Epai-mahaiak maiatzaren 29an emango du ezagutzera bere erabakia eta atzeraezina izango da. Epai-mahaikideak nortzuk diren erabakia ematen den egunean jakinaraziko da.

Epai-mahaiak, oinarri hauek irakurtzerakoan sor daitezkeen zalantzak bere kabuz irtenbideratzeko ahalmena du.

Kartel saritua Udalaren esku geratuko da. Udalak, kartela argitara emateko eskubidea bere gain hartzen du.

Lehiaketan kartel originalak aurkezten dituenak, oinarri hauek diotena ontzat ematen du.